



Inaguratu dute Alkartasuna Biltokiaren taberna-jatetxea

ANOETA ▶ Aitor eta Andoni Riaño anaiek hartu dute jubilatuen egoitzako zerbitzu horren ardura ▶ 4



Herenegun egin zuten ekitaldi ofiziala Alkartasuna Biltokian; ondoren, mokadubtxoa hartu zuten. I. GARCIA

ALEGIA ▶

**«Kultur mugimendua
martxan jarri dugu,
eta pozik gaude»**

II. Kultur Asteak utzitakoaz balantze
ona egin du Kultur Batzordeak ▶ 5



Jone bakarlarria. I. GARCIA

TOLOSA ▶

**Gure
Irratiaren
aldeko jaia,
gaur,
Bonberenean**

Bihar, Jone bakarlari
anoetarra eta Petti
ariko dira etxean ▶ 3

LEITZA ▶

**The Solanos taldea
Torrea tabernaz
jabetuko da gaur**

Trikitixa eskuan, tangoak, Italiako
musika eta rocka joko dute ▶ 7

TOLOSA ▶

**Olarraingo auzokideak
«pozik» dira jaietako
parte-hartzearekin**

Ostiraletik igandera denetik izan zen
aukeran: musika, kirola, bazkaria... ▶ 3



Igande goizean txarangak alaitu zituen auzoko txokoak. HITZA

ANOETA ▶

**Ur gordailu
berria
martxan
jarri dute**

Ur horniketa hobea
eskaintzea, xede ▶ 4

KULTURA ▶

Hil honetan izatekoak direnak

Udalak azaroko kultur ekitaldi eta jardueren aurrerapena egin du; askotariko ekintzak izango dira

IRATXE ETXEBESTE

Azaroon Tolosan izango diren kultur ekitaldi eta jardueren aurrerapena egin du Udalak. Hilero bezala, askotariko ekitaldiak antolatu dituzte udal arduradunek hilabete honetarako. Herriko gune ezberdinetan izango direnez, hona hemen horietako bakoitza, zehatz-zehatz azaldu:

BIDEO EMANALDIA

'IpuinArtean'. Irazki elkarte kulturantzak antolatuta, *Nevimata-berriak* bideo emanaldia izango da 19:30ean, gaur, Kultur Etxean.

ERAKUSKETAK

'IpuinARTEan'. Erakusketa ibiltaria Aranburu Jauregian izango da ikusgai hilaren 12a bitarte, Tolosa 750. Urteurrena Fundazioak eta Irazki elkarte kulturantzak antolatuta. Astelehenetan eta jaiegunetan izan ezik, egunero bisita daiteke erakusketa, 17:30etik 20:30era.

Palestinari buruz. Centro Cultural Palestino elkarteak antolatuta, Palestinari buruzko erakusketa izango da hilaren 28an eta 29an Kultur Etxeko bigarren solairuko gelan.

HITZALDIAK

'Doping-a eta kirola'. DV Kultur Aretoko antolatuta, *Dopin-a eta kirola* izeneko hitzaldia izango da hilaren 23an, asteazkenarekin, Kultur Etxean. Solasaldia 19:30ean hasiko da.

EHU. Euskal Herriko Unibertsitateak antolatuta, hitzaldia izango da hilaren 30ean Kultur



Hilaren 26an hasiko da Txotxongilo Lehiaketa; Indiakoekin jarri zuten iaz erakusketa Tolosan. I. ETXEBESTE

Etxean, 18:30ean hasita. Antolatzaileek ez dute zehaztu oraindik zeren ingurukoa izango den.

IKASTAROAK

Sukaldaritza. Sukaldaritza ikastaroaren hasiera izango da hilaren 18an, ostiralarekin. Ostiralero izango da ikastaroa Tolosaldea Garatzen-en egoitzan, 19:30etik 21:00etara.

Capoeira. Capoeira ikastaroaren hasiera izango da hilaren 19an. Larunbatero, 10:00etatik 12:00etara izango da ikastaroa, Kultur Etxean.

JAIALDIAK

Gure Irratia. Gure Irratia jaialdia izango da gaur Bonberenean, 22:30etik aurrera. Ekitaldi horren baitan, Nuuk-at eta Sexysexters taldeek kontzertu bana eskainiko dute. Ipar Euskal Herriko irratia laguntzeko izango da jaialdia.

Txotxongilo Jaialdia. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia izango da Antonio Maria Labaien kultur etxean hilaren 26tik abenduaren 4ra.

JARDUNALDIAK

Magreb-a. Irazki elkarte kulturantzak antolatuta, Tolosako II. Magreb-ari buzuko Jardunaldiak izango dira hilaren 8a eta 12a bitartean. Ekitaldi ezberdinak antolatu dituzte jardunaldi horien baitan: hitzaldiak, mahai-inguruak, musika, antzerkia...

LEHIAKETAK

Babarrun produktoreak. Tolosako VIII. Babarrunaren Produktoreen Lehiaketa izango da hilaren 19an, larunbatarekin, Triangulo plazan. Goizean hasi eta eguerdia bitarte izango da lehiaketa.

Babarrunaren lehiaketa. IX. Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa izango da hilaren 20an, igandearekin, goizean hasita. Ondoren, herri bazkaria izango da, Ferialekuan.

MUSIKA

Karlos Jimenez. 12 geltoki (Laida/Elkar, 2004) izeneko bakarkako bere lehen diskoa aurkeztuko du musikariak bihar,

20:00etatik aurrera, Aranburu Jauregian. Piano kontzertua eskainiko du Jimenezek.

Javier Muguruza. Kontzertua eskainiko du hilaren 11n Javier Muguruza musikariak Antonio Maria Labaien kultur etxean. 22:30ean hasiko du emanaldia.

Tea Band. Kontzertua eskainiko du gaur Tea Band taldeak, 23:30etik aurrera, Fronton kafetegian.

Jone eta Petti. Jone eta Petti bakarlariek kontzertua eskainiko dute bihar, 22:30etik aurrera, Bonberenean.

Eraso eta Kokein. Bi talde horiek kontzertua eskainiko dute hilaren 11n, ostiralarekin, Bonberenean, 22:30ean hasita.

Xabier Erkizia. Xabier Erkiziak kontzertua eskainiko du hilaren 12an, larunbatero, Bonberenean. 22:30ean hasiko da musika emanaldia.

Zea Mays eta Bad F-Line. Bi taldeen kontzertua izango da Bonberenean hilaren 18an, ostiralarekin. 22:30ean hasiko dira emanaldiak.

Deskontrol. Bonberenean eskainiko du kontzertua Deskon-

trol taldeak hilaren 19an, larunbatero, 22:30ean hasita.

Tolosako Musika Banda. Santa Zezilia Eguneako kontzertua eskainiko du Tolosako Musika Bandak hilaren 20an, igandez, Musika Eskolaren egoitzan. 12:00etan hasiko da musika emanaldia.

TOPAKETAK

Gurasoen Topaketak. Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuak antolatuta, Gurasoen Topaketa izango da Errotako Haur Liburutegian hilaren 10ean, ostegunetik, 15:00ak eta 16:30ak bitartean. Bertan parte hartzeko izena eman behar da aldezturritik, eta 6 euro balio du matrikulak.

Gurasoen Topaketa. Gurasoen Topaketaren bigarren saioa hilaren 17an izango da, ostegunarekin, 15:00ak eta 16:30ak bitartean. Bertan parte hartzeko izena eman behar da aldezturritik, eta 6 euro balio du matrikulak.

ZINE-KLUBA

'El señor Ibrahim y las flores del Corán'. Francois Dupeyron zinemagile frantziarraren filma hilaren 10ean eskainiko dute, 21:30etik aurrera, Kultur Etxean. Sarrerak 2 euro balio du.

'Contra la pared'. Fathl Akin da *Contra la pared* filmaren zuzendaria, eta hilaren 17an eskainiko dute bere lana, 21:30etik aurrera, Kultur Etxean. Sarrerak 2 euro balio du.

'El pabellón de los oficiales'. Hilaren 24ean eskainiko dute filma, 21:30etik aurrera, Kultur Etxean. Sarrerak 2 euro balio du.

hitza

lagunen txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honetekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR

Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

KULTURA ▶

Gustu adina musika doinu, Bonberenean

Gaur Gure Irratiaren jaialdia egingo dute; bihar, Jone bakarlaria ariko da

NOELIA LATABURU

Ohi den bezala, asteburu hone-tan ere musikak hartuko du protagonismoa Bonbereneako taulan. Kalitateko eskaintza sortu nahian, etengabe kontzertuak antolatzen dituzte bertan, eta gainean duguna ez da salbuespena izango. Horrela, asteburuan lau kontzertu izango dira entzungai.

Gaur, gainera, egun berezia ospatuko dute; izan ere, Gure Irratia jaialdia antolatu dute. Honen harira, Nuuk-at eta Sexysexters taldeek kontzertu bana eskainiko dute, 22:30etik aurrera. Ipar Euskal Herriko irrati-egoera larrian da egun, eta Euskal Herria osoari «mugi dadila» eskatu dio. Horretarako egingo dute gaurko kontzertuen emanaldia. Bonberenea leku egokia dela diote irrati-arduradunek, eta «eskerrak luzatu» nahi izan dizkiete etxekoei, kontzertua baimentzeagatik. Sarrera 5 eurokoa izango da eta barruan, beste 5 euroren truke, irratiak ekainean kaleratutako 23 euskal taldek eginiko diskoa erosi ahal izango da. Hain zuzen ere, gaur jotzen ariko diren aipatutako bi

taldeek —Nuuk-at eta Sexysexters— disko horretan parte hartu dute.

Joneren estreinaldia etxean

Bihar ere izango da ez ohiko ekitaldirik. Oraingoan Bonbereneako estudioetatik bero-bero atera berri den emaitzarekin datoz. Jone bakarlari anoetarrak bere estreinako diskoaren aurkezpena egingo du. Bonberenea Ekintzak zigilua du, eta sei kantu berriz osatuta dago —*Askatasunaren bidean, Zu zara, Agurtuz, Galdu zitzaigun dena, Ez zaude nirekin, Estutasuna*—. Karlos Osinaga Txap arduratu da grabaketaz, eta Karlos Aranzegi baterian, Fran Iturbe gitarran eta Joni Ubeda baxuan izan ditu bidelagun. Azken honek ekoizpen eta koordinazio lanak ere burutu ditu. Iragan urtean *Mar-txaundi 4* bildumarako grabatu zuen *Estutasuna* kantua 19 urteko abeslariak. Kantu honen jarraipena izan da, bada, bere disko berria. Harekin batera, Petti musikari nafarrak, folk basati izenda genezakeen estiloren aitzindari den bakarlariak, eskainiko du saioa.



Jone bakarlari anoetarrak bere lehen diskoa aurkeztuko du Bonbereneako ikusleen aurrean. IMANOL GARCIA

AGUS HERNAN ▶ GURE IRRATIA-KO ARDURADUNA

«Ipar Euskal Herrian euskarak duen egoera txarra hobetzea dugu xede»

Gure Irratiak kanpaina antolatu du Euskal Herria osoan, irrati-ak lokalak aldatu behar duela eta 185.000 euroko diru laguntzak behar baititu. Aipatu kanpaina erakundeei zen euskal zale guztiei barreiatu nahi dute Iparraldeko irratiak, ekitaldi ezberdinekin. Irratiko arduradun Agus Hernanekin hitz egin du HITZAK, gaur Tolosan eskainiko duten kontzertuen gainean, bai eta kanpainaren gainean ere.

Zergatik antolatu duzue gaur Tolosan izango den jaialdia? Lokal aldaketa egin behar dugu datorren urte hasieran, Baionatik Ustaritzera. Horretarako 185.000 euro behar ditugu. Horregatik ekin genion kanpaina honi. Ekainean *Zure Rock n'rolla* diskoa kaleratu

genuen, 23 euskal talderen partaidetzarekin. Egungo euskal musikaren erradiografia da. Honekin batera, bestelako ekitaldiak antolatu ditugu: Durangon kontzertua uztailean, gaurkoa, eta Baionan urtarrilaren 16an Kuraia eta Sorkun ariko dira. Halaber, larunbatean Miarritzen egingo dugun jaialdiarekin DVD bat argitaratu dugu, datorren hilean.

Zein da, bada, kanpainako mezu nagusia? Lapurdin eta Ipar Euskal Herrian euskararen egoera oso txarra da. Datuen arabera, 10.000 euskal hiztun gutxiago daude; 45.000 direla aintzat hartuta, larrizeko datuak dira. Gure xedea hori hobetzea da, garrantzitsua baita euskara mugitzea Iparraldean.

Ba al du, ordea, konponbiderik egoera honek?

Bi bide nagusi daude horretarako: batetik, ikaskuntzaren bidez, ikastetxeetan; eta, bestetik, komunikabideen bitartez. Honetan zeresan handia du irratiak.

Nori dago zuzendua dirua biltzeko kanpaina hau?

Batik bat deiadarra botere publikoei zuzendu diegu, Ipar zein Hegoaldeko. Udalbidek, esaterako, 56.000 euroko laguntza emango digu, baina oraindik asko geratzen zaigu.

Zer egoera du egun Gure Irratiak?

Oso egoera txarrean aurkitzen gara. Ez dakigu kopuru hori lortzerik izango dugun, eta gure langileen lanpostuak ere arriskuan daude orain. ◀

JAIK ▶

Auzokideak «oso pozik», Olarrain auzoko jaiek izandako jarraipenarekin

Partaidetza altua izan da ekitaldi guztietan asteburu osoan

N. LATABURU

Iragan asteburuan ospatu zizuten Olarrain auzoko biztanleek euren urteroko jaiak. Ostiraletik igandera bitarte egin zizuten, eta antolatzaileak «oso pozik» azaldu dira jendeak ondo erantzun duelako.

Denetik izan zen bertan, hala nola, musika, kirola eta janaria. Ostiraleko mus txapelketak ere erantzun ona izan zuten; izan ere, 14 bikotek hartu zuen par-

te. Irabazleak Jose Antonio Aseginolaza eta Kastor Martinez izan ziren, arkumea etxera eramane zutenak. Larunbateko afaria ere «arrakastatsua» izan zen, bertan izan baitziren 70 lagun, eta oso «giro ona» sortu zuten.

Igande goizeko ekitaldi izarra goizean egindako Mendiko Bizikletan XVII. Trabiesa izan zen. 140 kirolarik eman zuten izena bertan, «jarraipen handiarekin». Giroa ere ona izan

zen eta, eguraldia lagun, ez zen istripurik izan trabesiak hartzen zuen ibilbide guztian zehar. Igandeak bestelako ekitaldiak ere izan zituen. Ohiko kapera meza nagusia egin osten, auzoko helduei hamaketako legea eskaini zieten auzokideek. Umeek ere beren tartea izan zuten eguerdi partean, jolas asko antolatu baitzizuten haientzat. Bien bitartean, txaranga batek alaitu zituen auzoko txokoak, goiz guztian



Mus Txapelketako irabazleak, Aseginolaza eta Martinez. HITZA

zehar. Ondoren, bazkaria egin zuten Bixente Gorostidi eta Ekaitz Goikoetxea bertsolari-ekin.

Balantze «positiboa», beraz, Olarraingo festetako antolatu-zaileek egin dutena; datorren urterako gogotsu dira berriro.



ANOETA ▶ GIZARTEA

Taberna-jatetxea inauguratu berri du Alkartasuna Biltokiak

Aitor eta Andoni Riaño hartu dute jubilatuen egoitzako zerbitzuaren ardura

IMANOL GARCIA

Orain urtebete inguru Alkartasuna Biltokiaren egoitza berria inauguratu zuten. Baina gauza bat falta zen: inor ez zen aurkeztu egoitzaren taberna-jatetxeko zerbitzua lehiaketara atera zenean. Gauzak horrela, elkarte boluntario talde batek eman du taberna zerbitzua.

Baina atzotik egoera erabat aldatu da. Aitor eta Andoni Riaño anaiek hartu dute taberna-jatetxearen ardura. Herenegun arratsaldean egin zen inaugurazioa. Bertan, Manuel Odriozola Alkartasunako lehendakariak gai horren inguruan egoitzak izandako gorabeherak azaldu zituen eta eskerrak eman zizkien boluntario moduan lan egiten ari zirenei. Bestalde, Udalarik eskerrak eman zizkion arduradun berriekin adostasun batera iris-



Aitor Riaño, Manuel Odriozola eta Andoni Riaño, topa egiten. I. GARCIA

teagatik. Riaño anaiei ere eskerrak eman zizkien taberna-jatetxearen arduragatik. «Genuen ametsa lortu da», azaldu zuten Odriozolak, eta gaineratu:

«Jubilatuaren egoitza hau aurrera ateratzen lagunduko dugu». Fidel Azpiroz alkatea ere pozik azaldu zen taberna-jatetxe zerbitzua martxan jarri zelako eta

«txoko hau denon artean partekatze» gonbita luzatu zuen. Ondoren, lunch oparibat banatu zieten egoitzara joandako kideei.

Arduradun berriek taberna zerbitzua eta pintxoak emateaz gain, eguneko menua zerbitzatu dute 7,50 euroren truke. Aitor Riaño izango da sukaldeko lanak egiten. Eskarmentu handia du — anaiaekin Tolosako Amets taberna-jatetxea eta Hernialdeko Elketa jatetxea eramaten ditu — eta ilusioz ekin dio erronka berriari.

Alkartasuna Biltokiko taberna-jatetxe zerbitzua lanegunetan 06:30etik 21:00etara izango da irekita; larunbatetan 17:00etatik 21:00etara, eta igandetan 17:30etatik 20:30era. Lanegunetan pintxoak eta eguneko menua emango dira, eta asteburuan taberna zerbitzua bakarrik izango da.

ANOETA ▶ AZPIEGITURAK

Herriko ur gordailu berria martxan da dagoeneko

ERREDAKZIOA

Anoetako ur gordailu berria dagoeneko indarrean sartua da, datorren urtearen hasieratik aurrera bazegoen ere aurreikusia. «Ondorioz, egungo biztanleei zein gerokoei ur horniketa hobea eskainiko die, eta bide batez 1970ean eraiki zen ur gordailu zaharrari adio emanez, bere historia amaitutzat ematen da», azaldu dute Anoetako Udaletik.

Honela, bukatutzat emango dira 2003tik aurrera ur gordailu zaharraren egiturako ontzie-

tan agertu ziren pitzaduren ondorioz sortu izan diren hainbat arazo. Ontzietako bat erabat ezgaitua geratu zen, eta egoera normalean 600 m³-ko erantzun gaitasuna edukitzetik 300m³-tara gutxitu zen.

Aldi berean, kontrol elektriko, klorazio eta sarrera zein irteerako hoditeria sistematan sortu ziren galeren ondorioz herriko ur horniketa egoera larriar geratu zen, eta inguru batzuk besteak baino kaltetuagoak suertatu ziren.

Egoera benetan konpondu ahal izateko Udalak lortu du

gordailu berria, Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainketan izan duen «eskuartze zuzenari esker, haxe baitzen benetan anoetarrei ur horniketa egokia ziurtatzeko ikusi zen aukera bakarra», diote Udaletik. 2004ko abenduaren 16an Foru Aldundiak ur gordailuren proiektuari oniritzia eman zion, eta aurreikusitako aurrekontua 727.795 eurokoa izan zen.

Ur gordailu berriak 1.400 m³ gordetzeko ahalmena izango da guztira, oraingo ahalmenaren bikoitza baino gehiago, gaur egun soilik 600 m³ gorde baitezkeen. Horrela, «etorkizuneko beharrak erabat bermatuak geratzen dira», zehaztu du Udalak.

Gordailuak ura bi lekutatik jasoko du: alde batetik, Hernialdeko erreka-stotik, harleku

nagusi gisa; eta, bestetik, Aixibarko iturritik. Gerora begira prestatua dago ere Ibiurko urtegitik etorriko diren urak jaso ahal izateko.

Anoetako Udalak «esker ona» agertu nahi die «azken bi urte hauetan bizi izan dituzten hainbat eragozpen edo arazok ulertzen jakin izan duten herritar guztiei, batik bat ur mozketak direla tarteko». Bestalde, Anoetako Udalak aditza eman du «une guztietan jakinaren gainean egon dela une oro eman diren gertakarietaz, ur mozketak eta lehortearen ondorioz sortu diren ur faltak, klorazio gehiagoren beharra sanitate maila mantetzeko, eta abar». Udalak gaineratu duenez, «Ibiurko ura dugunean geratuko dira arlo hauek guztiak zuzenduta eta benetan bermatuta».

ANOETA ▶

Agenda 21 egitasmoaren aurkezpena egingo dute

Astelehenean izango da udaletxean, eta herritar oro daude gonbidatuta

ERREDAKZIOA

Anoetako herriak, inguruko beste udalekin batera, Hernialdeko Udaltalde 21-ean parte hartzen du Agenda 21 proiektua garatzeko. Proiektu horren aurkezpena astelehenean, hilaren 7an, 19:30ean, egingo dute udaletxean, eta herritar oro daude gonbidatuta. Ondoan, egitasmoa kudeatzen duen enpresak emango ditu azalpenak, eta herritarren zalantza guztiak argituko ditu.

Ernioaldeko Udaltalde 21 hainbat udalerri osatzen duten lan taldea da, eta Tokiko Agenda 21 ezartzea du helburu. Ernioaldeko Udaltalde Aduna, Anoeta, Asteasu, Hernialde, Irura, Villabona eta Zizurkil herriek osatzen dute. Udalek talde lanaren abantailak aprobetxatzen dituzte, elkarren artean Tokiko Agenda 21 prozesuari buruzko informazioa eta esperientziak elkaraldatuz. Agenda 21 udalerrira garapen iraunkorreko printzipioen arabera kudeatzeko tresna da. Helburua Agenda 21-en Ekintza Plana garatuz herritarren bizi kalitatea hobetzea da, ingurumena, gizarte eta ekonomia arloen arteko oreka lortzeko.

Tokiko Agenda 21 prozesuan urrats ezberdinak bereizten dira: motibazioarekin hasi, egungo egoeraren diagnostikoa burutu eta ondoren Ekintza Plana garatuko eta ezarriko da. Baina Agenda 21 ez da hor bukatzen, prozesu jarraia da, eta horregatik jarraipen plan bat ere garatzea beharrezkoa da.

Anoetari egokituta, udalerrirako plan bat osatu nahiko luke Udalak, hau da, zehaztu Anoetak nola izan nahi duen etorkizuneari, eta erabaki datozen urteetan herrian egin beharreko ekintzak. Herritarren eta gizarte eragileen partaidetza oso garrantzitsua da. Partaidetza hau bi eratan landuko da: mahai tekniko bidez, eta herri batzarren bidez. Lehen herri batzarra hilaren 29an izango da.



Banataile Ofiziala 

- Etxeko altzariak.
- Ordenagailuz egindako proiektuak.
- Armairu enpotratuak neurritara.

Lizardi poeta, 2 - Tel.: 943 65 29 01 - TOLOSA

OSTATUA

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea ezik)
- Karta aste guztian zehar

Urrope plaza • Leaburu
Tel.: 943 67 15 48

ALEGIA ▶ KULTUR ASTEA

«Kultur mugimendua martxan jarri dugu, eta pozik gaude»

Partaidetza bestelakoa izan da, baina «lehen aldia izatearen garrantzia» azpimarratu du Kultura Batzordeak

MARTA SAN SEBASTIAN

Alegiarrek bukatutzat jo zuten pasa den astean euren Kultur Astea. Bigarrena izan bada ere —lehen 1981an egin zuten—, estreinaldiaren zirrara somatu dute herritar gehienek. 24 urte pasatu dira lehenengo aldi hartatik, eta kulturarako gosea berpiztu da Alegian. Aurtengoan zenbait ekintzetan partaidetza txikia izan bada ere, Kultura Batzordeak «aldeko balantzea» egiteko nahikoa izan da.

«Ekitaldi batzuetan herritar asko ibili da eta beste batzuetan, aldiz, ez hainbeste; guztion gustura ezin delako programazioa egin», argitu du Monika Atxutegik, Kultur Etxeko arduradunak. Izan ere, bestelako partaidetza izan dute antolatutako ekintzek. *Nora hoa neska* antzerki saioan, esaterako, jende andana bildu zen, 50 lagun inguru, eta antolakuntzako ki-deak oso pozik azaldu dira. Udal liburutegian egindako ipuin kontaketa ere haur eta

gaztetxo ugari bildu zen, «urte guztian izan den ipuin kontaketa jendetsuena» izan da.

Hala ere, antolatutako ekintza guztiek ez dute horrelako harrera izan. *Bertsolaria barkarkako lanaren aurrean* deituriko bertso eskola irekian 15 lagun besterik ez ziren izan. Alegian bertso eskola berria martxan jartzen ari den honetan, hitzaldi honek harrera hobe izango zuela uste zuen Kultura Batzordeak. Gosegarri moduan erabili nahi izan dute



Talagintza tailerrak ez zuen oso harrera ona izan. JAIONE ASTIBIA

hitzaldia, ondoren bertso eskolan jarraipena izateko.

Argazki Lehiaketaren inguruan ere gogoeta egin dute antolatzaileek. Argazki gutxi jaso zituzten epe barruan eta ondoren, epez kanpo, argazki morda jaso zituztela argitu du Monika Atxutegik. Aurtengoa, lehenengo aldia izaki, denbora gutxi eman dutela argazkiak bidaltzeko uste dute, eta hurrengo urtera begira epea luzatu eta jendeari denbora gehiago eman nahi diote. Honez gain, jasotako argazkiekin egindako erakusketa ikustera ere ez da jende asko inguratu.

Txintzarri Eguna Kultur Astearen egitarau barnean kokatzea egokia eta «guztionez onuragarria» izan da Kultur Batzordearentzat. «Bagenekien Txintzarri Eguna urria bukaera aldera egin ohi zela, eta haiek ados zeudenez, Kultur Astearen baitan ospatu dugu

aurten». Txintzarri eta Txintzarri Txiki abesbatzek indar handia dute Alegian, eta egiten dituzten emanaldi guztietara ikus-entzule asko biltzen da. Kultur Asteko egitarauan sartuz, bultzatzaile eta pizgarri gisa funtzionatu zezakeela pentsatu zuten. Esan eta egin. Urriaren 23an egin zen Txintzarri Eguna, eta arrakasta itzela izan zuten.

Kultur Batzordeak egin duen balantzea, beraz, «positiboa» dela diote. Lehenengo aldia izatearen garrantzia azpimarratu dute eta, aurrera begira, zer egin eta zer deuseztatu jakiteko erabilgarria izan da. «Herrian kultur mugimendua somatu da aste horretan, eta hori oso garrantzitsua da Alegia bezalako herri batentzat», argitu du Kultur Etxeko Monika Atxutegik. Martxan jarri dute, beraz, aurtengoan Kultur Astea. Ez da gutxi.

ALTZO ▶

Yoga ikastaroa martxan da dagoeneko

Altzoko Udalak hainbat ikastaro egiteko aukera eman ditu. Izena eman duten herritar guztien artean, eskaera handiena izan duen ikastaroa aukeratu du Udalak. Yoga ikastaroa izan da arrakastatsua. Klaseak asteazkenean hasi ziren eta urtarri bitarte iraungo dute. Hala ere, interesa duenak oraindik ere badu izena emateko aukera. 19:30etik 21:00ak bitarte izango dira klaseak, Errotxen. Esterila, manta eta kojina eraman behar dira.

ALEGIA ▶

Antzerki tailerra gazteentzat Kultur Etxean

Alegiako Kultur Etxeak antzerki tailerra antolatu du herriko gazteentzat. Eskola hauetan antzerki teknikak landuko dituzte 12 eta 16 urte bitarteko gazteek, eta hilaren 12an, 19an eta 26an izango dira eskolak, 10:00etatik 13:00etara. Kultur Etxeko batzar aretoan izango da tailerra, eta izena emateko Kultur Etxera jo behar da, hilaren 11 baino lehen. Ikastaroa dohainik dela jakinarazi dute, eta Alegiako Udalak antolatu du.

IBARRA ▶ GIZARTEA

EHNA egiteko aukera etzi udaletxean

10:30etik 14:30era izango da; errolda agiria, 3 argazki eta 15 euro eraman beharko dira

ERREDAKZIOA

Udalbiltzak abian jarrita eta Bai Euskal Herriari ekimenak sustatuta, «berriz ere, gure herrian bertan, aitortu ahal izango diogu Euskal Herriari dago-kion naziotasun eskubidea; Euskal Herriko Naziotasun Aitormena (EHNA) herrian bertan egiteko aukera izango dugun», azaldu dute. Izan ere, etzi Ibarra udaletxean EHNA tramitatzeko aukera izango da, 10:30etik 14:30era.

Proiektu hori hasi zutela hiru urte pasatu dira. Orduan, sinadura bilketari ekin zioten, eta 125.000 euskal herritar inguruk eman zuten sinadura. Udalbiltzari EHNA abian jartzeko eskaria eginez. Ibarra kasuan, 2.000 herritarrek baino gehiagok sinatu zuten. Udalbiltzak abian jarri zuten ekimen hori martxan jarri zen, tramitazioari ekinez, eta 2 urteren buruan 40.000 baina gehiago izan dira EHNA eskuan duten euskal herritarrak, Ibarra 200 baino gehiago izanik, adierazi dutenaren arabera.

Nola tramitatu EHNA?

EHNA duenak «Euskal Herria, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa Behea eta Garaia, Lapurdi eta Zuberoako lurraldez osaturiko herria dela, Euskal Herriaren hizkuntza euskara dela eta Euskal Herria, bere burua jabe, beregain, libre eta demokratikoki erabateko eskubidea duen nazioa dela» aldarrikatzen du. Halaber, zera aitortzen du, «Euskal Herria-

ra, eta Euskal Naziotasunaren jabe izanik, oharren, nahimen eta erabakimendu osoz, Euskal Herriaren bizi partaide izatea, eta guztiz aintzakotzat hartzea Euskal Herriaren berezko izantza, eta beregain bizitzeko borondatea, egungoa eta etorkizuneko».

«EHNA tresna eraginkorra izateko sortua izan da, eta gu guztion esku dago hala izatea. Beraz, dei egiten dizugu, EHNA erabil dezazun zure bizitzaren ahalik eta esparru gehienetan, banketxeetan, komertzioetan, eskaerak luzatzerako garaian...», adierazi dute. «Euskal Herriarrak gara! ez gara beste nazioetako herritarrak baino gehiago, ez eta gutxiago ere; beste edozein herrietako herritarrak bezala, gure naziotasuna, Udalbiltzak abian jarri duen agiriaren bidez, onartua ikusten dugu, eta Euskal Herriaren alde, lan polit bat egin dezakegulakoan gaude», gehitu dute.

Tramitazioa egiteko aukera etzi izango da Ibarra udaletxean. Horretarako, errolda agiria —ibartarrak ez direnek soilik—, 3 argazki eta 15 euro beharko dira. Bere garaian tramitazioa egin bai baina eskuratu ez zutenek berreskuratu ahal izango dutela egun horretan jakinarazi dute. Hala, lehen pausoa bideratuta, hilabete batzuren buruan igorriko zaie eskatzaileei Naziotasun Agiria. Gerora egingo diren artean, abenduan eskualde mailako eguna eta egun nazional bat antolatzea dutela helburu ere azaldu dute.

BELAUNTZA ▶ GIZARTEA

«Giro polita» izan da aurtengo Jubilatuen Egunean

Pasa den urriaren 30ean ospatu zuten Belauntzan urtero egiten duten Jubilatuen Eguna. Egun oso festa polita izan zen, eta herritar ugari hartu zuen parte. Ekitaldiz beteriko eguna izan zuten; hala, eguerdiko mezaren ondoren Toka Txapelketa izan zen, eta jubilatuen gehienak animatu ziren bertan parte hartzera. Jolasean aritu ondoren bazkari legea egiteko unea iritsi zen. 30 lagun inguru bildu ziren, eta «oso giro berezia eta polita» sortu zen. Bazkari horretan ohikoa den bezala, jubilatuen artean opariak banatzeko unea ere izan zuten, eta dantzan egiteko ere bai, bertsolariekin batera trikitilariak aritu baitziren bertako giroa alaitzen.



30 lagun inguru bildu ziren Belauntzan aurtengo Jubilatuen Egunean. HITZA

IBARRA ▶ POLITIKA

Bide Eginez batzarra bihar Subegin

Ibarra Batasunak jakinarazi dutenez, Bide Eginez lehen batzarra egingo dute bihar Ibarra Subegi kultur elkartearen 10:00etik 12:30ak bitartean. Bertan jorratuko diren gaiak ondorengoak izango dira: azken lau urteetako balantze politikoa eta hemendik aurrera Batasunak defendatuko duen ildo politikoa.

IBARRA ▶ KULTURA

'Herri inauteriak' ikusgai astelehenetik

Kutxa Kultur Ekintzak babestuta, azaroaren 7tik 21era —astelehenetik ostiralera 10:30etik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara— Iñaki Vergararen *Herri inauteriak* argazki erakusketa ikusi ahal izango da Ibarra Benito Izagirre kultur etxean.

PRESOAK ▶

Sindikatuaren deia gaurko bilkuretarako

ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE, ELB eta HIRU sindikatuek bat egin dute gaurko Etxerat-ek egindako kontzentrazio deialdiekin, Jose Angel Altzigurenaren heriotza salatzeke, eta dei egin diete herritarrei elkarretaratze horietan parte hartzeko.

GIZARTEA ▶

Saharen egoera salatzeke manifestazioa

Hilaren 14an Madrilgo Akordioen sinadura egin zela 30 urte beteko dira. Akordio horien bitartez Espainiak Sahara Marokori eta Mauritaniari entregatuz, bere erantzukizunarekin bukatu nahi zuten. Erakunde solidarioekin batera eta akordio horien urteurrenaren inguruan, urtero Saharako herriak bizi duen egoera bukatu dadin eskatzeko manifestazio bat antolatzen dute Madrilen, eta aurtengo hilaren 12an 12:00etan egingo da. Hara joateko autobusak antolatuta dituzte zenbait herritarrak. Informazio gehiago 626 34 50 09 telefono zenbakian.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

LEITZA-ARESO ▶

Arkupeak urte bukaerako festa eginen du hilaren 22an

Bazkideek txartelak hartzeko epea zabalik dago jada hurrengo astearte arte

J. ASTIBIA

Arkupeak elkarteak urtero ohi duen moduan, (urte bukaerako festa) eginen du hilaren 22an. Aurtengoan, ordea, bi zaitan izanen da: Donezteben, urtean zehar hildako bazkideen aldeko meza eginen dute; eta bazkaria, berriz, Gorraizko jauregiaren egitekoa dute aurreneko aldiz.

Bazkideek egun horretarako txartelak hartu nahi badituzte, hurrengo astearte, hilak 8 baino lehen egin behar dute, «30 eurotan», Txoko tabernan, edota «Arkupeak-eko delegatuen etxeetan», jakinarazi dutenez.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroško dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe Tolosa: 652889
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitza autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurreremendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

GIZARTEA ▶

Gizon bat atxilotu dute sexu erasoak egiteagatik

ERREDAKZIOA

Asteazkenean Iruran 26 urteko P. M. R. J. izeneko gizon bat atxilotu zuten, us-tez adin txikikoei sexu gehiegikeriak egiteagatik.

Atxilotuari «azken boladan Ormaiztegin eta Zizurkil-ekin adin txikiko umeen aurka» egin dituzten sexu gehiegikeriak egitea egotzi diote. Antza, aurreneko eraso Ormaiztegin egin zuen urriaren 23an, «musika kontzertu batean lapurreta egin zutela esan eta bere buruaertzain modura aurkeztu ondoren, batez ere adin txikiko neskei ukitu lizunak egiteko baliatuz», beti ere polizia iturriek diotenez. Zizurkil-ekin gauza bertsua egin omen zuen urriaren 29an.

POLITIKA ▶

Batasuneko 'Bide eginez' batzarrak herriz herri

ERREDAKZIOA

Bide eginez izenpean, I. Nazio Biltzarrean amaituko den barne-eztabada abiatuta du Batasunak, herriz herri batzarrak eginez. Anoetan, bihar eginen dute, 10:00etan, udaletxean bertan; Asteasu-n, 11:00etan, Kultur Etxean.

Bide batez, Asteasu-ko eta Villabonako Batasunak gaur Jose Angel Altzugarren Kotto-ren heriotza salatze-ko eginen diren elkarretaratzeetan parte hartze-ko deialdia egin du.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Irakurleen iritziak. Gure egunkarian argitaratu den edozein berriren inguruan, irakurleok gure iritzia eman dezakegu, gainerakoena irakurri, eta baita eztabaida sortu ere; edota guk gerok zerbaiten berri eman nahi badugu ere, baliabide egokia izan daiteke.

LEITZA ▶ KULTURA

The Solanos-ek Torrea bereganatuko du gaur

Trikitixa eskuan, tangoak, Italiako musika eta rocka jotzen dituen taldearen kontzertua izanen da gauerditik aurrera

JAIONE ASTIBIA

«Gaur gauerdetik aurrera, The Solanos jabetuko da Torreaz eta Italiako mafiako sustraiak bertan errotuko ditu». Halaxe iragarpena egin dute bertatik eta gertakizun horren berri zuzenean jakiteko, bertaratzeko dela onena ohartarazi, «baina erne, *cosa nostra*-tan sartu gabe», beti ere «borondate onez» joaten bada.

Izan ere, Xabier Solanok eta bere lau lagun musikaririk, Italiako mafiaren erabat girotutako taldea ez ezik, doinuak, jazkerak, antzerkia, girotzea egiten baitute, orain berriro sortu dute The Solanos taldearekin.

Gurean batez ere Etzakit taldeko trikitilari modura ezagun izan den kideak, Solanok, hura desegin zenean, eta Lau Itzalekin egindako urte parearen ondoren, trikitixarekin rock-a egiteko beste modu bat aurkitu du: musika eta ikuskizuna, antzerkiarekin lotuz, beraiek ez



The Solanos talde mafiosoaren irudi harrapatua. JUAN CARLOS RUIZ / A. P.

ezik, beren kontzertuetara joaten den jendea ere festan eta jai-giroan murgildu eta mugitu eta dantzatuaziz. Trikitixarekin batera, gitarra, baxua, bateria eta perkusioa dituzte lantresnak, ahots eta koro indartuak, eta kantatzen dutenarekin bat datorren girotze osoa, bai musikariren jazeran eta jokatzeko eran ere:

rock-a, tangoak, Italiako musika, bertakoa... Hori guztia mafioso talde honen eskutik.

Aipatzekoa da talde hau sortu otsailean egin zela, eta maizterako beren lehen kontzertua emana zuten. Eta orain berriro plazaratu dute beren aurreneko diskoa ere, Metak-en eskutik. Batez ere, alaitasuna eta festa ziurtatuta daude.

LEITZA ▶ ZINEMA

Asteburuan 'Entre copas' filma ikusteko aukera izanen da zineman

Bi gizaseme, bi bizimodu, bi ardo mota, bi ...; ikustera joatea onena, gaur edo etzi

J. ASTIBIA

Gaur gauean, 22:30ean, eta etzi arratsaldean, 19:30ean, *Entre copas* filma izanen da ikusgai Leitzako zinema aretoan.

2004. urte bukaeran Alexander Payne estatubatuarrek zuzendutako film honetan, bi gizasemen inguruko kontakizuna ageri da: itxuraz ez ezik, izakeraz ere oso desberdin direnak biak, zaletasunez, nahiz, asmoz, eta bestelako ezaugarrietan bezala, baina biek hala biei bizitzako asmoak huts egin izana dute antzeko. Horrela, sentimenduen arloan eskarmentu txarra izan duen dibortziatutako gizaseme batek, Mi-

les izeneko bera —Paul Giamatti aktoreak egindako pape-
ra—, handik astebetara ezkontzekotan den Jack lagunari —Thomas Haden Church aktorearen eskutik— mahastiz eta ardandegiz betetako bailarara bidaia oparitzen dio, bera ardorik onenaren bila ibiltzen dena izaki, eta elkarrekin doaz. Han, batak zein besteak, beren bizipenak izanen dituzte norberak bere erara, baina edozein moduz, biak hala biak ardoz blai egiten dira eta batek bertako kamarera batekin erromantzea izaten du, eta beste ardoetan aditu den beste batekin maitemintzen da. Sandra Oh eta Virginia Madsen ak-



Kritika onak jasotako filma. HITZA

toreak dira hauen paperak egin zituztenak.

Komedia eta drama nahastu dituen film honek ordu eta 23 minutuko iraupena du.

iragarki laburrak ▶

LANA
Langilea. Iturgintza, berokuntza eta gas lanetarako langilea behar da. Telefonoa: 656 41 68 08.

